

OLENTZERO

*Nundik dator Olentzero?
Askoren ustez, Laburdi'n sortua da.
Ango erririk geinetan, aspalditik Gabon
eguneko arratsaldean zan. Eta beti be gi-
zon eta mutil gazte artean.*

*Zergaitik baltzez margotuta?
Ikasgña iruditzen dalako.*

*Onetaz, Lizartza, Oresa eta ingurutan
esaten da, gau erdian tximinitik bera
etorten dala, baso andietan ibili ondoren.
Origaitik Tolosa inguruko erri askotan
esaten da tximiniak garbi euki bear dirala
sasoi onetan, Olentzero andik igaro dai-
ten.*

*Larraun'en gizon ordi ta moskortzat
dauke Ononzaro. Eta gabon gabeen txo-
rimalu baten antzera jantzita daukela, au
esaten dautse: Ononzaro, begi gorri, Non
arrapatu duk moskor ori?*

*Erri orretan uste dabe, Ononzaro'k ur-
teak aiña begi eta bat geiago daukazala.*

*Ikatz eta sua dabiltz Olentzaro,
Ononzaro edo antzerako gizon orren in-
guruan.*

*Azkue'k diño: «Onontzaro mokorra
deritzaion egur aundia, egun eta gau
osoan erretzen idukitzen da.*

*Dima'n gabon mukurra deituten dautse
ta gau guztian erreten eukiten da. Gaber-
diko meza ondorarte Ononzaro (lastozko
gizon bat) igitaia eskuetan duala, txapel
eta guzti, tximinitik bera zintzilik iduki-
tzen da.»*

*Toki batzutan lastozkoa, bestetan tra-
pozkoa. Umeak lotaratu ondoren gertu-
ten da eta su ondoan ipini. Umeei esaten
jakoe tximinitik agertu dala, gose andia
daukala eta gabeen erreko diran gaz-
tañen bat gorde bear dala beretzat. Et
arratsaldean kalez kale erabiltzen da.*

*Olentzero kantua bardin samarra da,
berba bat gora bera, tokirik geinetan.
Bat aukeratzeko, Lesaka'koa agertu-
ko dogu:*

*Onentzero, buru aundiya,
entendimentuz jantziya,
bart arratsian edan omen du
amar arruako zagiya.
Ay urde tripa aundiya!
tragatu bai duk zagiya!
Orra, orra gure Olentzaro,
pipa ortzian duela eserita dago.
Kapoitxuak ba dauzki arraultza-
txuekin,
biyak merendatzeko botil arduakin.*

Eta bertsolariak geituten dau:

*Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
borondate onarekin
ikatz egitera,
aditu zuenean
Jesus jaio zala,
korrika etorri zan
parte ematera.*

*Onantzaro izena mundik datorren?
Isasti istorigilleak au diño: Onen = óp-
timo eta zarro, tzaro = época.*

*Barandiaran eta beste jakintsu askok
Olentzaro, urteko denpora baten ezauga-
rrizat dauke.*

*Caro Baroja'k: Olentzaro: Oel, Joel,
Noel'en jaiia. Mito solar. Eta nortasun bi-
kotxa dala dino: Semidiós, especie de
baco-Dionisios, antes de la evangeliza-
ción. Personaje cínico, fauno, comilón y
bebedor, después de la evangelización.*

*Sebero Altube'k: Olentzaro = Noel
tzaro. Noel, Qel...*

*Orra egūnetako oitura baten jakingarri
batzuk.*